

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

221. zenbakia**Data 2012-11-20****2 orria**

3 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Xedapen Orokorrak

GFA-OGASUNA ETA FINANTZA

1019/2012 FORU AGINDUA, azaroaren 15ekoa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 840 eredu berria onartzen duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

1.019/2012 FORU AGINDUA, azaroaren 15ekoa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 840 eredu berria onartzen duena.

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak, udal zergen esparruan zenbait aldaketa sartzen dituenak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Testu bategina aldatu zuen, apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onartutakoa hain zuzen.

Besteak beste, testu bateginaren 5. artikuluko 1. apartatuaren c) letran araututako salbuespena aldatu zuen, eta horren ondorioz, negozio-zifraren zenbateko garbia 1.000.000 eurotik beherakoa duten subjektu pasiboak daude orain salbuetsita.

Aldaketa horren ondorioz, beharrezko gertatzen da egungo 840 aitorten ereduak aldatzea eta eredu berria onartzea.

Alde horretatik, azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretuak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren kudeaketari buruzko alderdi batzuk arautzen dituenak, 3.2 artikuluan dio zerga hori aitortzeko ereduak Ogasun eta Finantza Departamentuko foru aginduaren bitartez onartu behar direla.

Horiek horrela, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 840 ereduak onartzea.

Onarturik geratzen da jarduera ekonomikoak aitortzeko erabiliko den 840 ereduak, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagokiona, foru agindu honetan eranskin gisa ageri dena.

Bi ale ditu ereduak, Administrazioaren alea eta interesdunarena.

2. artikulua. 840 ereduak aurkeztera behartuak.

840 ereduak jarduera ekonomikoak hasi edo amaitzen direnean aurkeztu behar da, baita jarduera horietan aritzean zerga alorrean garrantzia duten aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikorik gertatzen denean ere.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, enpresari, profesional eta atxikitzaileen erroldan baja hartzeko eskaera aurkezten bada, ez da exijituko 840 eredurik aurkeztea. Alabaina, 840 ereduak aurkeztea nahitaezkoa izango da etxebizitzak errentan emateko jarduerari baja eman nahi zaionean eta jarduera hori pertsona fisikoek egiten dutenean.

3. artikulua. Aurkezpen moduak.

Bat. Bi modutan aurkez daiteke 840 ereduak: Bitarteko elektronikoak erabiliz, «PDF» betegarri baten bitartez, edo paperezko euskarrian.

Bi. 840 eredu bitarteko elektronikoz aurkezteko, kontuan hartuko da azaroaren 24ko 1011/2010 Foru Agindua, zerga arloko zenbait tramite bide elektronikoz egiteko obligazioa arautzen duenak, 3. artikuluan ezarritako prozedura.

Hiru. Eredua paperezko euskarrian aurkeztu nahi bada, inprimakia jaits daiteke Ogasun eta Finantza Departamentuaren webgunetik edo Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikotik, edo, bestela, eskura daiteke estanko baimenduetan erosita.

Aipatutako foru aginduaren 1. artikuluan xedatutakoa xedatuta ere, artikuluko horretan aipatzen diren subjektu pasiboek paperezko euskarrian aurkez dezakete 840 eredu.

4. artikulua. Aurkezteko epea.

Bat. Alta aitorpenak jarduera hasi aurreko lehen hamar egunen barruan aurkeztu behar dira.

Bi. Aldaketa eta baja aitorpenak hilabeteko epean aurkeztu behar dira, jarduera aldatu edo amaitzen denetik aurrera.

5. artikulua. Eredua paperezko euskarrian aurkezteko tokia.

Bat. Alta aitorpenak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Atalean -Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan- edo, bestela, Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan aurkez daitezke.

Bi. Aldaketa eta baja aitorpenak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren Atalean -Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan-, Ogasun eta Finantza Departamentuko herritarren arretarako bulegoetan, edo udaletxeetan aurkeztu ahal izango dira.

Xedapen indargabetzailea.

Xedapen hauek indargabetzen dira:

— 314/2009 Foru Agindua, apirilaren 17koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 840 eredu berria onartzen duena.

— 1.311/2003 Foru Agindua, abenduaren 18koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren 840 eta 841 eredu berriak onartzen dituena, 840 ereduari dagokionez.

— 695/1992 Foru Agindua, irailaren 8koa, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberaren aldeko baliabide iraunkorra biltzeari buruzkoa.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2012ko azaroaren 15a.—Helena Franco Ibarzabal, Departamentuko foru diputatua.

(9353) (10787)

